

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2016ko IRAILAREN 20an IZANDA-KO B°ATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

- Hezkuntza Arloko zinegotzia (Iñaki Gorroño Etxebarrieta)
- Udal Euskaltegiko ordezkaria (Marije Zubillaga)
- Gernikako AEK-ko ordezkaria (Ekaitz Klemos)
- Allende Salazar ikastetxeko ordezkaria (Itxaro Agirre)
- San Fidel Ikastolako ordezkaria (Bego Zabaleta)
- Seber Altube Ikastola (Maialen Basterra)
- Barrutia Ikastetxeko ordezkaria (Genma Astigarraga)
- Barrutialde Institutuko ordezkaria (Jorge Valiño)
- Gernika Institutua (Luiz Ortuzar)
- Mertzede ikastetxea (Anabel Gerrikagoitia)
- HHI-EPA (Emilio Linaza)

Ezin etorria zuritu dute hurrengoek: Marisa Aldmizetxebarria Euskara Zinegotzia, Xabier Bilbao (Berritzeguneko Normalkuntzarako teknikaria)

Idazkaria: Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Bittor Zarrabeitia)

Hasiera ordua: 9,30

Amaiera ordua: 11,00.

Aldez aurretik proposatu egin da gai zerrendako 5-c) puntua hirugarrenera pasatzea, AEK-ko ordezkariaren ardurapeko gaiekin bukatzeko.



**1.- 2015-2016 IKASTURTEAN IKASLE ETORKINEI
ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZUAREN
EMAITZAK AZTERTU ETA 2016-2017 IKASTURTERAKO
ESKAINITZA ZEHAZTEA.**

Gernikako AEKko ordezkariak 2015-2016 ikasturteko taldeen balorazio orokorra egin du:

- Bi talde izan dira
 - 15 ikasle A1 (hasiera) mailan. Lau baja izan dira (3 gabonak inguruan eta beste bat aurrerago: futbola, partikularrak,...). Balorazio positiboa egiten dute emaitzen arabera eta jarrera ere oso ona izan dela azpimarratu du.
 - Beste 11 B1 mailan (maila aurreratua). Guztiek bukatu dute ikastaroa, baina aipatu behar da bi ikaslek jarrera txarra izan dutela talde honetan, taldearen dinamikan horrek suposatzen duen kargarekin. Arazo hori baztertuta, emaitzak, orokorrean, oso onak.

Hausnarketa egin ondoren, **hauxe erabaki da:**

1).- Orain arteko eskemari eutsiko zaio (bi talde, A1 hasiera maila eta B1 hobekuntza maila).

2).- Zentroetako zerrendak jasotzeko epe muga: URRIAK 10. Ikasle bakoitzaren fitxa:

- Izen-abizenak.
- Jatorria eta udalerrira noiz etorria.
- Ikasketa maila eta euskara maila (“0” edo “hobekuntza”)
- Kontakturako eta jarraipenerako telefono zenbaki bat.

2).- Egunak, bi astean, aurkezpen egunean finkatuko dira. Ordutegia: arratsaldeko 5:00etatik 6:30era. Ikastaroaren ordu kopurua: 60 ordu.

3).- Ikastaroa Gernika Institutuan garatuko da (2011ko ekainaren 17ko bilkuran erabakitakoari jarraituz), ikasturte honetan eta hurrengoan. Beraz, hurrengo urteetarako ikastaroen lekua honako hurrenkeraren arabera izango da:



- 2016-2017/2017-2018 ikasturteetan: Gernika Institutua
- 2018-2019/2019-2020 ikasturteetan: Seber Altube Ikastolan.
- 2020-2021/2021-2022 ikasturteetan: Mertzede Ikastetxea.
- 2022-2023/2023-2024 ikasturteetan: San Fidel ikastolan.

2.- GURASOEI EUSKALDUNTZERAKO DOAKIEN ESKAITZAREN BERRI EMATEA

AEKko ordezkariak eskaini du informazioa. Hiru talde osatu dira:

- Oinarrizkoa (“0”tik); 13 ikasle matrikulatu eta bi baja izan dira (lana, beste lurralde batera joan beharra,...). Iluntzean aritu dira, martitzenetan eta eguenetan. Balorazio oso ona eta gainera jarraitzeko gogoarekin daude.
- A2 mailako taldea (4. Urratsa edo...); 11 ikasle hasi eta 4k amaitu. Beraz, balorazio txarra egiten dute talde honi dagokionean. Lehenengo aldiz da horrelako baja kopuru handia izan den taldea, arrazoi desberdineak bitarteko (lana,...).
- A2 maila aurreratua; 9 ikasle hasi eta 8k amaitu. Asistentzia ona eta arazo barik garatu da. Hauek ere errepikatzeko gogoaz azaldu dute.

AEKko ordezkariak azpimarratu du taldeen ordutegia ikasleen nahiaren arabera finkatzen dela eta ikastaroan zehar ere aldaketak egin izan direla ikasleekin adostuta. Euren proposamena da aurreko ikasturteko planteamendu berbera egitea eta urriaren 10erako jasotzea ikasleen fitxak.

Mertzedeko ordezkariak adierazi du gurasoekin batzarra egin dutela eta euren esanetan ordutegi arazoak izaten direla, baina aztertu beharko litzatekeela benetan motibazio faltarik ez ote dagoen.

Erabakia:

1).- Matrikula gisa 60 € kobratuko dira, matrikularen %25. HABEK taldeak homologa ditzan tramiteak burutuko dira eta defizita Udalak jarriko du.

2).- Zorrotz jokatu da azpimarratuz titulaziorako ikastaroa ez dela, hastapenerako baino.



3).- Epe muga matrikulatzeko: urriak 10 (plaza mugatuak izango dira).

4).- Ikastaroaren ordu kopurua 120 ordu, urritik ekainera. Ordutegia ikasleen gogoetara egokitzeko ahalegina egingo da.

3.- GU-GAZTE PROIEKTUA (2016KO MAIATZAREN 17KO BATZARREKOAREKIN LOTUTA)

Ekaitz Clemos GU-GAZTE proiektuko teknikaria aritu da informazioa eskaintzeko. Maiatzean egindako bilkurari jarraituz, sasoi honetarako datu bilketa kuantitatiboari ekin zaio.

Hurrengo pausuen berri eman du:

- Datu kualitatiboak jaso, bidezko diagnostiko kualitatiboa eratzeko.
- Horretarako, galdetegia zentro bakoitzeko erreferente izango denari, inkesta ikasleei (12-17 urte bitarteko ikasleei), Gazte fororako zentro bakoitzeko bi ordezkari izendatzea (bata kanpoko jatorrikoa eta beste bat bertokoa).

Batzarkideen artean banatu da txostena eta garatuko den guztiari buruzko agiria (1. Eranskina).

4.- ESKOLAZ-KANPOKO KULTUR EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK: AURREKO IKASTURTERAKO FINKATURIKO IRIZPIDEAK MANTENTZEN DIREN ERABAKI

Batzordeko idazkariak azaldu du atal honetako diru laguntzak banatzeko irizpideak ebatzi zituela Udal Eskola Kontseiluak 2015eko irailaren 15ean izandako batzarrean. 2015-2016 ikasturterako ebatzi hori hauxe izan zen:

“Udal Eskola Kontseiluak, aho batez, bigarren aukerari eutsi dio, hau da, gutxieneko kopuru bat finkatu zentro guztientzat (400 euro) eta gainerako guztia ikasle kopuruaren arabera banatzea.”



Erabakia:

Eskolaz-kanpoko kultur ekintzetarako diru laguntza ematearren, 2015-2016 ikasturtean erabilitako irizpideari eutsi 2016-2017 ikasturtean ere, hau da, zentro guztientzat gutxienekoa (400 euro) eta gainerakoa ikasle kopuruaren arabera banatzea.

5.- ZENTROETAKO “EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO PLANAK” GARATZEARREN 2016-2017 IKASTURTEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIAREN EGOKIPENAK AZTERTZEA.

Batzordeko Idazkariak informazioa eskaini du deialdiarekin bidalitako araudia dela eta. Gogorarazi egin du diru laguntzak banatzeko irizpideak mantentzen direla, baina aldaketa dagoela kopuruan, hau da, kopuru orokorra 18.000 eurokoa izango da ikasturte berrirako (2015-2016 ikasturtean 20.000 eurokoa izan zen). Beraz, araudiaren bosgarren klausulako baremoak ere aldatu egin beharko dira.

Bestalde, deialdia egiteko bidezko ebazpena hartuko den arren, zentroetan araudi horren arabera eskaera eta agiriak prestatzen hasi ahal direla jakinarazi zaie.

Beraz, **hauxe erabaki da:**

1).- Diru kopuru orokorra 18.000 €koa izango da. Beraz, araudiaren bosgarren arau berezia honela geratuko da:

- a).- 800 €, gutxienekoa, zentro bakoitzari (800x7 = 5.600 €).
- b).- 8.000 € ikasle kopuruaren arabera banatzeko.
- c).- Gainerakoa (4.400 €) araudiari jarraiki egitasmoen balorazioaren arabera banatzekoa.

3).- Zentro bakoitzeko gutxieneko aurrekonturako 2.000 € finkatu eta gehieneko aurrekonturako 8.000 €.



**6.- UDALETIK ESKOLA MUNDURAKO DAUDEN KANPAINA
ETA ZERBITZUEN BERRI EMATEA ETA GAINERAKO
INFORMAZIO INTERESGARRIA.**

Puntu honen barruan, honakoak aztertu dira:

A).- GU ERE BERTSOTAN EGITASMOA IKASTETXEETAN.-

Batzordeko idazkariak adierazi du 2016-2017 ikasturterako aurrekontu orokorrak gora egin duela. Aurreko ikasturtearen amaieran Bertsozale Elkartearekin batzartu zen Euskara Zinegotzia eta bertan jaso zuen hurrengo ikasturterako prebisioa (taldeak eta orduak), aurrekontu orokorrak gora eginik: iazkoa 19.840 euro eta oraingoa 22.692 euro.

Horrek, gastuaren banaketa egokitu beharra dakar eta taulak ere bai (2. Eranskina).

Institutuko ordezkariak adierazi du ez duela ulertzen euren kasuan gastuak gora egitea, taldeak eta ordu kopurua iazko berbera bada.

Barrutia ikastetxeko ordezkariak adierazi du aurtengoan beste talderen bat izango dutela.

Batzordeko Idazkariak aipatu du bidalitako taula aurrerapen bat baino ez dela eta, ikasturtea martxan jarri ahala, taldeak eta ordu kopuruak ondo zehazten direnean finkatuko dela gastuan banaketarako behin-betiko taula.

Erabakia:

Bertsozale elkartearekin harremanetan jarri eta argitu igoeraren arrazoiak zeintzuk diren. Horren arabera eta ikasturtea martxan jarrita osatutako taldeak eta ordu kopuruak zehaztuta, finkatuko da gastuen banaketarako taula 2016-2017 ikasturterako.

B).- GU-GAZTE PROIEKTUA.- Batzarra hasi aurretik aipatutakoagatik aurreratu da 3. Puntura.

C).- GAZTEZULO aldizkariaren berrikuntza.- Batzordeko Idazkariak adierazi du Gaztezulok paperezko aldizkariaren inguruko hausnarketa egin



duela eta beste proiektu bat jarri duela martxan: “Beitu!” euskarazko aldizkari digitala.

Paperezko ereduarekin jarraituko da abendura arte, baina urtarriletik aurrera ekingo zaio proiektu berriari. Batzordeko idazkariak adierazi du Euskararen Plan Estrategikoan bertan dagoela zehatz jasota gazteentzat komunikaziorako aproposak liratekeen kanal digitalak eratzea beharrezkoa dela eta aukera ezin hobea dela Gaztezulok eskaintzen duena. Aurrekontu igoera dakar, baina merezi du. Egitasmo hori ez dago ikasturtearekin lotuta soilik, urte osokoa delako; horrekin eskola kutsua kendu egiten zaio eta gazteek bizitza normalean eta uneoro gustuko duten komunikazioa konpartitzeko aukera izango dute (**3. Eranskina**).

Gaztezulokoak jarriko dira harremanetan zentroetako arduradunekin hau guztia martxan jartzeko.

D).- HIK HASI ALDIZKARIAREN HARPIDETZARENA

Batzordeko idazkariak argitu duenez, egitasmo hau zuzentzen zaie lehenengoz matrikulatzen diren ikasleen gurasoei. Badago beste aldizkari ateporal bat (HAZI HEZI) jaioberrien gurasoei banatzen zaiena, baina kasu honetan gehiago lantzen da arlo pedagogikoa eta familiaren barruan diren harremanen inguruko hausnarketa zientifikoa edo aholkularitza (haurtzarora, nerabezarora,...). Urtean zehar jasotzekoa da hiruhilabetekaria (4 ale).

Hori guztia bideratzeko, gutun eredu bat eta fitxak banatu zitzaizkien Lehen Hezkuntzako zentroeiei. Batzuk banatu dituzte eta harpidetza eskaerak jaso ere bai. Beste batzuk oraintxe ari dira lan hori betetzen. Beraz, hilaren azkenera arte zain egongo gara zentro guztien eskaerak jaso arte.

E).- IRAKURZALETASUNA BULTZATZEKO EGITASMOA

Batzordeko idazkariak azaldu du egitasmo honetako adar bat dugula udal Liburutegiarekin elkarlanean garatzen dena (irakurri, gozatu eta oparitu/ Kontuleku Programa eta tailerra).

“Irakurri, gozatu eta oparitu” kanpaina horretan erabiltzen den deskontu-bono sistemaz ikastetxeek etekina atera zezaketela aipatu zen



iazkoan, liburutegiko txartela ikastetxeak berak izanda, liburutegiko fondoak erabili aha izateko aukerazegoelako eta bonoak ere lortzeko. Hausnarketa egin da eta ondorioa atera ere; agian, bono sistema horrekin baino etekin handiagoa ateratzen diote ikastetxeek editorialekin zuzenean negoziatuz.

Dena dela, gonbitea egiten zaie ikastetxeei Udal Liburutegiaren jardueretara gurasoak eta ikasleak bideratzeko (kontuleku, irakurketa tailerrak,...).

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Gaika egiten den batzarrerako data jarri da: urriaren 13a, goizeko 9,30etik aurrera (deialdia egingo da).

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Hezkuntza Arloko zinegotzia

Batzordeko Idazkaria,

Iñaki Gorroño Etxebarrieta

Bittor Zarrabeitia Bengoa

